

#EzDaAbusuaBortxaketaDa #Niksinestendizut - 12:00etan Mikel Laboa plazan elkarretaratzea

✖ “Manada”ren epaiketaren sententziak argi utzi du justizia patriarkala dela, emakumeon testigantzen sinesgarritasuna kolokan jartzen baitu. Epaiak ez du bortxaketa onartzen, “sexu-abusu jarraitua” baizik, sexu-erasoaren azpian dagoena. Emakumeen kontrako iraina eta gure askatasunaren kontrako eraso.

Unibertsitate-komunitatea deitzen dugu gaur 12:00etan Mikel Laboa plazan egingo den elkarretaratzera, ebazpen honen aurrean gure amorrua adierazteko.

Era berean, Bilbo, Gasteiz eta Donostian 12:00etan izango diren elkarretaratzeetara hurbiltzeko gonbidapena egiten dugu.

#EzDaAbusuaBortxaketaDa

#Niksinestendizut